

LANGABEZIA, PREKARIETATEA, MURRIZPEN SOZIALAK...

E29 GREBA OROKORRA

BANAKETA ETA JUSTIZIA SOZIALAREN ALDE

Kapitalismoa birsortua izan da jadanik, politikari eta kapitalisten trebeziak gain, nor bere banakako ongizate eta kontsumo mailari atxikiegia dagoen langileriaren moteltasunari esker. Gaur egun, artzen diren erabakiak adiera bakarrekoak eta erantzunezinekoak dira hemen eta Grezian. Produktibista, lehiatsua eta ezberdintasunen eta eskubideen murrizpenen sortzailea den merkatu globalaren beharrak agintzen du.

Krisia, iristea utzi diogun lekuan dugu. Bi urte luze hauetan banka eta enpresendako lotsagabeko laguntzak, langabezi maila izugarria eta txirotasun eta bazterketa sozialaren gorakadek ez dira aski izan erantzun sendo eta zabal bat eman izateko.

Ziurrenik, krisiaren bilakaeran eraginik izateko unerik aproposena atzean utzi genuen; hura non kapitalismoa arazo ekonomiko, sozial eta ekologikoen sortzailetzat auzitan zegoenean, prozesu guzti honen hastapenetan. Ala eta guztiz ere, guztiongan eragina duten murrizpen goriak ematen ari diren garai hauetan, bakar bakarrik, galdutako eremuaren ahal dugun zatia berreskuratzeko aukera besterik ez zaigu geratzen. Horrexegatik, E29ko Greba Orokorreko deialdia, jatuntasun neoliberalaren aurrerapausoak gelditzeko aukera ematen digu. Greba baten deialdiak dakarren ardura eta eraginkortasun nahiaren hurrean aintzat hartu behar da ez egitearen ardura eta eraginkortasuna. Arriskuari eutsiz, erantzuna lehen bai lehen eman behar dela uste dugu. Denboran, borrokatu nahi ditugun neurrietatik ahalik eta hurbiltasun handienarekin. Guzti honengatik LKNk ekainak 29rekin Greba Orokorreko deia luzatzen du eta parte hartzera animatzen zaituzte.

LKN ren apustua, geroz eta handiagoa izan beharko litzatekeen mobilizazio dinamikoaren aldekoa da, ala nola ordena mundial eta gizarte eredu arras ezberdin baten aldekoa. Hauexek dira E29an Greba Orokorreko eramango gaituzten arrazoien ildoak:

- Murrizpenak gelditu: doitze plana, lan erreforma, pentsioak...
- Antikapitalista, birbanatzaile eta desarrollismoaren aurkako neurriak: gastu militarren murrizpena, errenta altuenak zergapetu, AHT proiektua gelditu...
- Lana eta baliabideen banaketaren alde: Gure gizartearen baitan eta munduko herri ezberdinen artean. Kontsumo ahalmena galtzeko prest gaude aberastasunaren banaketaren alde. Aberastasuna kolektibitatean, parte-hartzean, autogestioan aurkituko dugu. Soldata sorta murriztu beharra dago, lanaldia, jaiegunetako lana, ordu estrak desagerrarazi, enplegu-aniztasuna...
- Berdintasun eta zuzentasunezko gizarte baten alde: non emakumeak, etorkinak eta gazteak sistemaren kalteak diren langabezia, ezegonkortasuna eta diskriminazioa ez dituzte pairatuko.

**KALERA IRTETZEKO GARAIA DA, GREBA OROKORRA
E29, MITINA ETA MANIFESTALDIA.
11tan VINCULO PLAZAN. IRUÑEA.**